# DONEJAKUE BIDEA EUSKADIN
## EL CAMINO DE SANTIAGO EN EUSKADI




## GOMENDIOAK
## RECOMENDACIONES

Planifikatu hurrengo eguneko etapa: Erromesen aterpe asko udan bakarrik irekitzen dituzte

Komeni da Bidea bakarrik ez egitea.

Ez ahaztu dokumentazioa, kredentziala eta dirua –edo kreditu-txartela–, eta kontu handia izan baliozko objektuekin.

Eraman etapa bakoitzerako janari eta edari nahikoa eta larrialdietako botika-kutxa.

Eraman oinetako eta arropa egokiak, eguraldiaren iragarpena kontuan hartuta.

Komeni da mugikorraren bateria ongi beteta eramatea.

Zure segurtasunerako, jarraitu senaile ofizialei. Trazadura diferente bat adierazten duten gezi horirik aurkituz gero, ez jarraitu halakoei.

Errespetatu ingurunea eta gainerako erromesak.

*Planifica la etapa del día siguiente: Muchos albergues de peregrinos sólo abren en verano.*

*Es aconsejable realizar el Camino en compañía.*

*No olvides documentación, credencial y dinero –o tarjeta de crédito- y ten cuidado con los objetos de valor.*

*Lleva comida y bebida suficiente para cada etapa y botiquín de urgencia.*

*Lleva calzado y ropa adecuado teniendo en cuenta la predicción del tiempo.*

*Es aconsejable llevar la batería del móvil bien cargada.*

*Por tu seguridad, sigue la señalización oficial. Si encuentras flechas amarillas que indican un trazado diferente, no las sigas.*

*Respeta el entorno y a los demás peregrinos.*

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

# Bidezatia / Tramo
# IRUN/HONDARRIBIA > JAIZKIBEL

DONE JAKUE BIDEA EUSKAL HERRIA

km 0 **IRUN/HONDARRIBIA**

**SANTIAGO ZUBIA (IRUN)**

Zubia gurutzatu ondoren, itsasadarraren bideari jarraitzen dion bidegorria hartuko dugu Santiago kalera iritsi arte. Junkaleko Andre Mariaren Elizaren ondoan bira egingo dugu eta udaletxeko plazara bideratzen gaituzten eskailerak jarraituko ditugu. Udaletxea igaro ondoren, Kostaldeko Bidea eta Barnealdeko Euskal Bidea bitan banatzen dira. Guk eskuinalderantz jarraituko dugu Kolon Pasealekutik eta Hondarribia kaletik Mendelurantz. Amuteko zubia igaro ondoren, zebra-bidea zeharkatuko dugu eta padura-inguru baten ondotik igaro ondoren auzo-bide bati jarraituko diogu Santiagotxo ermitaraino (5 km).

**KAIZARRAKO ONTZIRALEKUA (HONDARRIBIA)**

Santiago kaletik alde zaharrera bideratuko gara eta gazteluaren aurrean dagoen Arma Plazara igoko gara. Kale Nagusitik jaitsiko gara eta Andre Mariaren atearen azpitik, eta eskuinalderantz jarraituko dugu Santa Engrazia ermitaren alboko biribilgunera iritsi arte. Ermitaren eskuinaldean harrizko eskailera batzuk gorantz doaz eta auzo-bide batera iristen dira, eta bide horri jarraituz Santiagotxo ermitara iritsiko gara (3 km).

km 3 **SANTIAGOTXO.** Bideak baserrien arteko errepide batetik jarraitzen du. Aterpetxe pribatu batera iritsi aurretik Guadalupeko ermitara igotzen den bidea hartuko dugu, eta bertatik Txingudiko Badiaren ikuspegi bikainaz gozatuko dugu. Ermitaren alboan izen bereko gotorlekua dago, Gipuzkoako defentsa-eraikuntza ederrenetakoa izaki.

km 5,1 **GUADALUPE.** Santutegiaren aurretik abiatzen den baso-pista hartuko dugu; aurrerago ezkerralderantz egiten du Jaizkibel mendia bere hegoaldeko hegaletik inguratzeko. Erromes batzuek hegalaren erdialdeko pista honi jarraitzea aukeratzen badute ere, Jaizkibel mendiak tontorretik eskaintzen duen ikuspegiak merezi du Bide ofizialari jarraitzeko ahalegina egitea. Bide horrek hasieran igoera gogorra du, eta ondoren, tontorreko kordalari jarraituz, bigarren gerra karlistan eraikitako dorreak elkartzen ditu.

KMZ

GPX

km 0 ***IRUN/HONDARRIBIA***

***PUENTE DE SANTIAGO (IRUN)***

*Tras cruzar el puente, tomamos el carril-bici que sigue el curso de la ría hasta la calle Santiago. Giramos junto a la iglesia de N. Sra. del Juncal y seguimos por las escalinatas que nos llevan hacia la plaza del ayuntamiento. Pasado éste, se desdoblan el Camino de la Costa y el Camino Vasco del Interior. Nosotros seguimos a la derecha para continuar por el Paseo Colón y la calle Hondarribia hacia Mendelu. Tras pasar el puente de Amute, cruzaremos el paso de cebra y tras pasar junto a una zona de marismas, seguiremos por un camino vecinal hasta la ermita de Santiagotxo (5 km).*

***EMBARCADERO DE KAIZARRA (HONDARRIBIA)***

*Por la calle Santiago nos dirigimos a la zona vieja y ascendemos a la plaza de Armas, frente al castillo. Bajamos por Kale Nagusia para pasar bajo la puerta de Santa María y seguir a la derecha hasta alcanzar una rotonda junto al humilladero de Santa Engrazia. A la derecha de éste, ascienden unas escaleras empedradas que desembocan en un camino vecinal por el que alcanzaremos la ermita de Santiagotxo (3 km).*

km 3 ***SANTIAGOTXO.*** *El Camino continúa por una carretera entre caseríos. Poco antes de alcanzar un albergue privado tomamos el camino que asciende hasta la ermita de Guadalupe con unas vistas imponentes sobre la bahía de Txingudi. Junto a ésta se encuentra el fuerte del mismo nombre, una de las construcciones defensivas más bellas de Gipuzkoa.*

km 5,1 ***GUADALUPE.*** *Tomamos la pista forestal que parte frente al santuario, y que más adelante gira a la izquierda para rodear el monte Jaizkibel por su ladera sur. Aunque algunos peregrinos optan por seguir esta pista a media ladera, las vistas que ofrece Jaizkibel desde las alturas bien merecen el esfuerzo de seguir el Camino oficial. Éste se inicia en fuerte ascensión, para luego unir, por el cordal cimero, los torreones construidos durante la segunda guerra carlista.*



eu es

# DONEJAKUE BIDEA
# CAMINO DE SANTIAGO

Kostaldeko Bidea **1** El Camino de la Costa

## IRUN/HONDARRIBIA DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN

Km. 24,6 | 883m. | 6h. 45'



United Nations Educational, Scientific and Cultural Organization

**Routes of Santiago de Compostela:** ***Camino Francés*** **and Routes of Northern Spain** inscribed on the World Heritage List in 1993

EUSKADI BASQUE COUNTRY

Kostaldeko Bidearen hasiera sinbolismoz beteta dago: Bidasoa ibaiaren muga naturala gainditzen duen Santiago Zubian hasten da, edota Hondarribian, txalupan zeharkatu nahi izanez gero. Lehen etapa hau ibilbide osoan aurkituko diren gauzen laburpen paregabea da: itsasoaren ondoan dauden mendikateak, adibidez Jaizkibel edo Ulia; zeharkatu behar diren bokaleak, adibidez Pasaiako itsasadarrarena; kostaldearen ikuspegi bikainak dituzten bidexkak; marinel-herriak, adibidez Hondarribia; eta amaiera bikaina emateko, Donostia.

*El comienzo del Camino de la Costa no puede estar más cargado de simbolismo: arranca en el puente de Santiago, que salva la frontera natural del río Bidasoa, o en Hondarribia, si se quiere cruzar en barca. Esta primera etapa es una perfecta síntesis de las constantes que se hallarán a lo largo de todo el trayecto: cordilleras montañosas junto al mar como en el caso de Jaizkibel o Ulía; desembocaduras que hay que sortear como la de la ría de Pasaia; senderos con excelentes vistas sobre el litoral, pueblos marineros como Hondarribia y un colofón ideal, Donostia-San Sebastián.*

24,6 km 883 m 6h 45'








## EZ GERATU EZAGUTU GABE!
## ¡NO TE LO PIERDAS!

Ekainaren 30ean Irunen edo irailaren 8an Hondarribian baldin bazaude, ezin zara geratu herri horietako alardeak ikusi gabe. Alardeen tradizioa, Gipuzkoako herrietan urtero egiten zen arma-ikuskatzeetatik eratorri da.

*Si estás en Irun el 30 de junio y en Hondarribia el 8 de septiembre no puedes perderte los alardes de estas localidades. La tradición de los alardes se remonta a la revista de armas que se realizaba anualmente en las villas gipuzkoanas.*





Albaola Itsas Kultur Faktoria, Pasai San Pedron portuaren bokalean kokatuta dagoena, ontzi historikoen eraikuntzara bideratuta dagoen gune berritzailea da. Jendearentzat irekita dago eta itsasoari eta artisau-eraikuntzari lotutako hainbat jarduera eskaintzen ditu.

*La Factoría Marítima Vasca Albaola, situada en la bocana del puerto, en Pasai San Pedro, es un espacio innovador dedicado a la construcción de embarcaciones históricas. Se encuentra abierto al público y oferta diversas actividades en torno al mar y a la construcción artesanal.*

Donostiako Santiago Apostoluaren parrokia-eliza Donejakue Bidearen toki enblematiko bat da zure egiaztagiria zigilatzeko.

*Un lugar emblemático de la ruta jacobea para sellar tu credencial en Donostia-San Sebastián, es la Iglesia Parroquial de Santiago Apóstol, en el barrio de Amara Viejo.*




# Bidezatia / *Tramo*
# JAIZKIBEL > DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN

km 9 ····· **JAIZKIBEL**. Beherantz egiten hasi ondoren, mendi-lepo batera iritsiko gara, eta Guadalupe igaro ondoren utzi dugun pistara jaisten den bidea hartuko dugu ezkerraldean. Gezi batek Pasaiako aterpetxera doan desbiderapena adierazten du, baina jaisten jarraituko dugu Lezorantz doan Bide ofizialetik.

km 13,8 ·· **LEZO**. Lezora iristean, Auñamendi kalean behera jo, eta Saldise plaza eta errepidea zeharkatuko ditugu Gurutze Sainduaren basilika dagoen plazara iristeko; basilika hori oso ezaguna da bizarrik gabeko Kristo bat duelako. Kale Nagusitik gora, Pasai Donibanerantz abiatuko gara.

km 15,7 ·· **PASAI DONIBANE**. Pasai Donibanek “kale bakarra” du, oso berezia; Victor Hugoren etxeren ondotik igaro (gaur egun turismo-bulegoa dago bertan) eta santutxo batera helduko gara; santutxoaren parean Pasai San Pedrora eramango gaituen txalupa hartuko dugu.

km 16,2 ·· **PASAI SAN PEDRO**. Badia zeharkatutakoan, eskuinaldera joko dugu, portuaren bokalerantz, Albaola Itsas Kultur Faktoriaren ondotik igaroko gara; Albaolan XVI. mendeko San Juan baleontziaren erreplika eraikitzen ari dira, eta lanak zuzenean ikus daitezke.

km 18,5 ·· **PLATAKO ITSASARGIA**. Itsasargira sartzeko zabalgunean, ezkerraldean bidexka bat abiatzen da eta bertatik kostaldea eta akueduktu zaharrak ikusi ahal izango ditugu; Donostiako edateko uraren hornidura-sarearen aztarnak dira. Bidegurutzea igaro ondoren ezkerraldetik jarraituko dugu, eta ikastola baten alboan dagoen auzo-bide batera iritsiko gara; bertan eskuinalderantz joango gara eta Uliako parkerantz jarraituko dugu.

Parkean sartzerakoan, gazte-aterpetxera doan desbideratzea ezkerrean utziko dugu, eta beherantz joango gara pista eroso bati jarraituz errepidearen bihurgunearen azpian bira eginez, gure bistan Donostia agertu arte. Ondoren, lehen bidegurutzean, eskuinerantz egingo dugu bira eta aldapa handi bat jaitsiko dugu, Zurriolako hondartzara iritsi arte. Kursaal eraikina igaro eta Zurriolako zubia zeharkatu ondoren, Donostiako Boulevardera iritsiko gara, etapa honen amaierara.

km 24,6 ·· **DONOSTIA**

km 9 ····· ***JAIZKIBEL.*** *Tras comenzar a perder altura, alcanzamos un collado y tomamos a la izquierda el camino que desciende a la pista que habíamos dejado tras pasar Guadalupe. Una flecha indica el desvío al albergue de Pasaia, pero continuamos descendiendo por el Camino oficial que se dirige a Lezo.*

km 13,8 ·· ***LEZO.*** *Al llegar a Lezo, bajamos la calle Auñamendi y cruzamos la Plaza Saldise y la carretera para subir a la Plaza donde está la basílica del Santo Cristo, famosa por albergar un Cristo imberbe. Subiendo por la calle Mayor nos dirigimos hacia Pasai Donibane.*

km 15,7 ·· ***PASAI DONIBANE****. En Pasai Donibane recorremos su pintoresca “única calle”, y tras pasar junto a la casa de Victor Hugo (actual oficina de turismo), llegamos a un humilladero, frente al que tomaremos la barca que cruza a Pasai San Pedro.*

km 16,2 ·· ***PASAI SAN PEDRO****. Una vez cruzada la bahía, seguimos a la derecha hacia la bocana del puerto para pasar junto a la Factoría Marítima Vasca Albaola, donde se puede visitar en directo la construcción de una réplica de la Nao San Juan del siglo XVI. Al final del paseo alcanzamos unas viejas escaleras que nos conducen, no sin esfuerzo, al faro de Senokozuloa, con unas inmejorables vistas de la bocana del puerto. Tras recuperar el aliento, retomamos la ascensión hasta alcanzar la pista que conduce al Faro de la Plata.*

km 18,5 ·· ***FARO DE LA PLATA.*** *En la explanada de entrada al faro, parte a la izquierda una senda que nos permite divisar la costa y los antiguos acueductos, vestigio de la red de suministro de agua potable de San Sebastián. Tras pasar un cruce, en el que seguimos por la izquierda, llegamos a un camino vecinal junto a una ikastola, giramos a la derecha y continuamos hacia el parque de Ulía.*

*Al entrar en el parque, dejamos a la izquierda el desvío al albergue juvenil, y comenzamos el descenso por cómoda pista bajo la curva de la carretera, hasta que San Sebastián aparece ante nuestra vista. Después, en el primer cruce, giramos a la derecha para descender por una empinada cuesta, por la que llegaremos a la playa de Zurriola. Tras pasar el edificio Kursaal y cruzar el puente de Zurriola, llegamos al Boulevard donostiarra, final de esta etapa.*

km 24,6 ·· ***DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN***

www.euskadituriismo.eus

## KONTUAN HARTU BEHARREKOAK
## A TENER EN CUENTA

• Bidearen hasieran egiaztagiria lortzeko modurik errazena Irungo erromesen aterpetxean eskatzea da, honako helbide honetan: Lucas de Berroa kalea, 18. zk., 1. solairuan, edo San Gabriel eta Santa Gema elizan (Pasiotarrak) helbide honetan: Geltoki kalea 16. zk. (goizez bakarrik).

• *La manera más sencilla de conseguir la credencial al comienzo del Camino es en el albergue de peregrinos de Irun, en la calle Lucas de Berroa nº 18-1º, o en la Iglesia de San Gariel y Santa Gema (Pasionistas) en la calle Estación 16 (sólo en horario de mañana).*

• Eguraldi txarreko egunetan edo indarrez nahiko juxtu dauden pertsonentzat, Jaizkibelera hegoaldeko mendi-hegalean zehar doan pistatik, altuera-erdian, ez igotzea gomendatzen dugu.

• *En días con condiciones meteorológicas adversas o para aquellas personas que no se vean con fuerzas, es recomendable evitar la ascensión a Jaizkibel por la pista que discurre por su ladera sur, a media altura.*

• Jaizkibelgo jaitsieran Pasaiako erromesen aterpetxerako desbiderapena aurkituko dugu, baina Bide ofizialak Lezo zeharkatzen du, non Gipuzkoako eraikin erlijioso garrantzitsuenetako bat aurkituko dugun: Santo Kristo basilika.

• *En la bajada de Jaizkibel encontramos un desvío al albergue de peregrinos de Pasaia, pero el Camino oficial discurre por Lezo, donde encontramos uno de los hitos religiosos de Gipuzkoa: la basílica del Santo Cristo.*

## TELEFONO INTERESGARRIAK
## TELÉFONOS DE INTERÉS

| | | |
|---|---|---|
| Turismo Bulegoak<br>*Oficinas de Turismo* | | |
| Irun | | 943 020 732 |
| Hondarribia | | 943 645 458 |
| Pasai Donibane - Casa Victor Hugo Etxea | | 943 341 556 |
| Donostia-San Sebastián | | 943 481 166 |
| Bidasoako Interpretazio Zentroa<br>*Centro Interpretación Bidasoa* | | 943 505 826 |
| Donejakue bideen lagunen elkartea<br>*Asociación de Amigos del Camino de Santiago* | Irun | 943 624 185 |
| | Gipuzkoa | 943 427 281 |
| Larrialdiak<br>*Emergencias* | | 112 SOS DEIAK |

